BIZITEGI ERAIKINA — BLAS DE LEZO 4

D MAILA





Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1884

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko bost goi oin dituena, azkena mantsardatua (eraikitzen ari zen jatorrizko proiektuaren berehalako aldaketa gisa). Fatxada harlandua behe oinean eta entokatua, bao uztarri irtenak dituena goi oinetan. 1934an, behe oineko lokalaren hiru baoak lotu ziren. Jatorrizko proiektu komuna San Martin 56rekin.

Babes erregimena.

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: 5. goi oina, mantsardatua.
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Hirugarren oineko beirazko itxitura birjartzea.
      * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin loturikoak barne.